

**SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN
COMPETITIVAERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZietATEA, S.A.REN (SPRI)
BARNE INSTRUKZIOAK ARAUKETA HARMONIZATUARI
LOTURIK EZ DAUDEN KONTRATUAK EGITEKO**

AURKIBIDEA

1. XEDEA ETA ONESPENA.....	3
2. KABI-EN INTERPRETAZIOA	3
3. KABI-EI LOTUTAKO KONTRATUAK	4
4. KABI-EK ARAUTUTAKO KONTRATAZIOAREN PRINTZPIO OROKORRAK...	4
5. KABI-EK ARAUTUTAKO KONTRATUEN IZAERA ETA APLIKATU DAKIEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA.....	6
6. KONTRATAZIO ORGANOAK	6
7. ENPRESARIAREN GAITASUNA ETA KAUDIMENA	6
7.1. Kontratatzeko gaitasuna	6
7.2. Kontratatzeko gaitasuna egiaztatu.....	7
7.3. Operadore kualifikatuen zerrenda	7
8. ESKA DAITEZKEEN BERMEAK.....	7
9. KONTRATUAK PRESTATU.....	8
10. KONTRATISTA AUKERATU ETA KONTRATUAK ESLEITU:	9
10.1. Kontratu mailak	9
10.2. Publizitatea.....	9
10.3. Esleitzeko prozedurak.....	10
10.4. Kontratista aukeratu	12
10.5. Kontratuak formalizatu	13
11. ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKOKO ARAUAK.....	14
12. JURISDIKZIO ESKUDUNA	14

1. XEDEA ETA ONESPENA

Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A. ("SPRI") sektore publikoaren barruan dago Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateratua (aurrerantzean SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.1.d) artikuluan zehazten den moduan. Era berean, SPRIk esleipenak egiteko ahalmena dauka SPKLTBren 3.3.b) artikuluari jarraituz.

Jarraian datozen Kontratazio Arloko Barne Instrukzioek (aurrerantzean KABI) ondoko helburua dute: arauketa harmonizatuari loturik ez dauden kontratuak egiteko SPRIren barne prozedurak arautzea, publizitate, konkurrentzia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioak berma daitezen, eta baita ere kontratua esleitu dakion beti eskaintza onena aurkezten duenari, SPKLren 191.b) artikuluan xedatutakoa beteaz.

KABlak onartuta geratu ziren Baltzuaren Administrazio Kontseiluaren 2008ko ekainaren 4ko batzarrean, behin zegokion Lege Aholkularitzako txostena prestatu eta gero. 2008ko ekainaren 5ean sartuko dira indarrean eta egun horretatik aurrera abiatzen diren kontratazio espedienteek aplikatuko zaizkie.

KABlak derrigorrez bete behar dira SPRIren barruan. Era berean, KABLEk araututako kontratuen esleipen prozeduretan parte hartu nahi duten guztien eskura jarri behar dira eta Spriren kontratatzailearen profilean argitaratu.

2. KABI-EN INTERPRETAZIOA

KABI hauen ondorioetarako, bere inzialekin eta hizki larriz agertzen diren terminoek instrukzio horietan zehaztutako adiera izango dute, eta KABletan definituta ez daudenak, berriz, termino horientzat SPKLTBan zehaztutako adiera izango dute.

Baldin KABlen ondorioz SPKLTBko agindu bat aplikatzeko agindu hori egokitu egin behar bada, edo agindua osorik nahiz partzialki aplikatzeko modurik ez badago, KABI hauen arabera aplikagarriak diren SPKLTBko beste artikulua batzuek agindu horretara egiten dituzten igorpenak egokitzapen edo indargabetze horien medioz egindakotzat joko dira.

Kontratuen balioa kalkulatzeko, SPKLTBren 88. artikuluan aurreikusten diren arauak aplikatuko dira eta ez da sartuko BEZik.

SPKLTBren II. Eranskineko 17. kategoriatik 27. kategoriara bitarteko zerbitzu-kontratuei buruz KABI hauen 9. atalean zehazten den zenbatekoa, bai eta kopuru batetik Aurrera SPRIk egindako kontratuak arauketa harmonizatuari lotutakotzat jotzen direnak, eguneratuta daudela ulertuko da, SPKLTBren Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian jasota dauden Europako Batzordeak zehaztutako araei jarraiki.

3. KABI-EI LOTUTAKO KONTRATUAK

KABIak SPRIk egiten dituen kostubidezko kontratu guztietan aplikatuko dira, edozein izanda ere kontratuaren izaera juridikoa. Salbuespen bakarra hiru kasu hauek izango dira:

- (a)** SPKLTBren 4. artikuluekin zerikusia duten negozio eta harreman juridikoak.
- (b)** SPKLTBren 13. artikuluari eta harekin bat datozeinei jarraiki arauketa harmonizatuari lotuta dauden kontratuak, zeinak SPKLTBren 190. Artikuluan xedatutakoari jarraituz esleituko diren.
- (c)** Sektoreko araudi aplikagarriak araututako edo espreski salbuetsitako kontratu eta negozioak, araudi horrek esaten duen moduan esleituko direnak.

4. KABI-EK ARAUTUTAKO KONTRATAZIOAREN PRINTZPIO OROKORRAK

KABI hauek aplikagarri zaizkien kontratuak SPKLTBren 1. artikuluan jasotako printzipioen bidez gidatuko dira eta, kasu guztietan, kontratu horiek esleitzerakoan derrigorrez bete beharko dira publizitate, konkurrentzia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioak, SPKLTBren 191. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aurreko paragrafoan esandako printzipioak betetzen direla bermatzeko, SPRIk KABLe jarraituz tramitatzen dituen kontratazio prozeduretan kontratazio organoek beti segurtatuko dute printzipio horiek zehatz betetzen direla.

Printzipio horiek beteta daudela iritziko da KABlen ondoko ataletan aurreikusten diren arauak betetzen direnean. Horiek aplikatu eta interpretatzeko, ondoko gidalerroak kontuan hartuko dira:

(a) Publizitate printzipioa beteta dagoela iritziko da, kontratuei buruzko SPRIren informazioa lizitatzailerik potentzial guztien jakinean jartzen denean hedabide egoki eta eskuragarri bidez, eta beti ere merkatua konkurrentziari zabaltzeko gisan.

(b) Gardentasun printzipioa beteta dagoela iritziko da, kontratua esleitu aurretik informazio egoki eta nahikoa zabaltzen denean lizitatzailerik potentzial guztiek aukera izan dezaten lizitazioan parte hartzeko. Era berean, printzipio honen bidez, parte-hartzaile guztiek aukera izan behar dute alde aurretik jakiteko zeintzuk diren esleitu nahi den kontratuari aplikatu dakizkiokeen arauak, eta segurtasun osoa izan behar dute arau horiek enpresa guztiei berdin aplikatzen zaizkiela.

(c) KABI hauetan aurreikusitakoari jarraituz, behar diren neurriak hartuko dira lizitatzailerik potentzial guztiek aukera izan dezaten lizitazioa aurkeztu eta bertan parte hartzeko, kontratua eskaintza onenari emateko.

(d) SPRIk konfidentzialtasun printzipioa beteko du isilpean atxikiz enpresari bere eskuetan jartzen duten informazio konfidentziala, informazioari izaera hori emateko arrazoiak daudenean, eta, bereziki, ezagutzera ez emanez sekretu tekniko edo komertzialak eta eskaintzen inguruko alderdi konfidentzialak. Era berean, printzipio honen bidez, kontratistak behartuta daude kontratua exekutatu bitartean jakinera heltzen zaien informazioaren konfidentzialtasuna errespetatzera, baldin pleguetan edo kontratuan informazio hori izaera konfidentziala ematen bazaio edo bere izaeraz konfidentzialki erabili beharrekoa bada.

(e) Berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioa bermatzeko behar diren neurriak hartuko dira prozeduren inpartzialtasuna eta ekitatea segurtatzeari begira. Neurri horiek ondoko hauek izango dira gutxienez:

(i). Kontratuen xedea beti idatziko da inor ez diskriminatzeko eran eta sekula aipatu gabe ez ekoizpen edo jatorri jakinik, ez produktu zehatzik, ez markarik, ez patenterik, ez motarik, ez jatorri edo ekoizpen jakinik, salbu eta hala egiteko beharra egoki justifikatzen bada eta aipua ondoen "edo baliokidea" hitzak jartzen badira.

(ii). Ez da jarriko inolako baldintzarik Europar Batasuneko beste Estatu kide batzuetako lizitatzailerik potentzialak zuzenean nahiz zeharka diskriminatzeko duenik.

(iii). Hautagaiei eskatzen bazaie tituluak, ziurtagiriak edo bestelako dokumentuak aurkezteko, ontzat hartuko dira Europar Batasuneko beste

Estatu kideetako dokumentuak, hartara behartzen duelako Europar Batasunaren barruko titulu, ziurtagiri eta bestelako diplomen baliokidetasun printzipioak.

(iv). Interesa agertzeko edo eskaintzak aurkezteko jartzen diren epeak nahikoak izango dira, beste Estatu kide batzuetako enpresek astia izan dezaten nork bere ebaluazioa egoki egin eta eskaintza aurkezteko.

(v). Baldin kontratu bateko esleipen prozeduran hornitzaile bat baino gehiago lehiatzen bada, SPRIk bermatuko du denek daukatela kontratuari buruzko informazio berdina baldintza berdinetan.

5. KABI-EK ARAUTUTAKO KONTRATUEN IZAERA ETA APLIKATU DAKIEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA

SPRIk egiten dituen kontratuak beti dute kontratu pribatuen izaera, SPKLTBren 20.1.artikuluari jarraituz.

SPKLTBn xedatutakoari jarraituz, KABlen bidez araututako SPRIren kontratuek beti bete beharko dituzte arauketa harmonizatuari loturik ez dauden kontratuak egiten dituzten sektore publikoko erakundeek derrigorrez bete beharreko xedapenak. Zehazkiago esanda, SPRI, Administrazio Publikoa ez izan arren sektore publikoko botere esleitzailerik den aldetik, SPKLTBren I. Liburuan ("Sektore publikoko kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak") jasota dauden arauetatik SPRIri aplikagarri zaizkionak bete behar ditu.

6. KONTRATAZIO ORGANOAK

Kontratazio organoak kasuan-kasuan erabakiko dira, Estatutuei eta SPRIri aplikagarri zaizkion gainerako xedapenei jarraituz eta beste organo batzuen alde delegatzeko eta ahalordetzeko aukerak ezertan guxitu gabe.

7. ENPRESARIAREN GAITASUNA ETA KAUDIMENA

7.1. Kontratatzeko gaitasuna

KABI hauetan araututako kontratuak bakarrik sinatu ahal izango dira sektore publikoko erakunde guztiei aplika dakizkiekeen SPKLTBren 54. artikuluan eta harekin bateragarriak direnetan zehazten diren baldintzak betetzen dituzten pertsonekin.

Zehazkiago esanda, ezingo da kontraturik egin SPKLTBren 60.1. artikuluan agertzen diren kontratatzekeo debekuetako baten barruan aurkitzen den inorekin, ezta ere debeku horien azpian egondako enpresen jarraipena direla edota aldaketaz, fusioz edo segidaz haieetatik eratorritakoak direla uste den enpresekin, dituzten zuzendariengatik edo veste zenbait arrazoiengatik heldu daitekeelarik susmo hori.

Eskatzen diren gutxieneko gaitasun eta kaudimen baldintzek zerikusia izan behar dute kontratuaren xedearekin eta xede horren araberrakoak izan behar dira.

7.2. Kontratatzekeo gaitasuna egiaztatu

Sektore publikoko erakunde guztiei aplikagarriak zaizkien SPKLTBren xedapenen kalterik gabe, kontratatzekeo kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo profesionala egiaztatzekeo, dagokion lizitazioan kontratu bakoitzaren ingurumari eta ezaugarriak aintzat hartuz zehazten den bidetik joko da, aplikagarria izango delarik SPKLTBren 75.etik 79.era bitarteko artikuluetan aurreikusten dena, baldin kontratazio organoak hala egitea iritziko balio.

Era berean, SPKLTBren 65.5. artikuluari jarraituz eta kontratuaren ingurumari eta ezaugarriak aintzat hartuz, eskatu ahal izango da ziurtatu dadila enpresariaren kaudimena dagokion sailkapenaren bidez.

Enpresariak bete beharreko kaudimen baldintza minimoak eta bere burua akreditatzeko ekarri beharko duen dokumentazioa lizitazio iragarkian adieraziko dira eta zehaztuta egongo dira kontratuko pleguan, KABLEi jarraituz kontratu plegua eskatu behar den kasuetan.

7.3. Operadore kualifikatuen zerrenda

SPRIK kualifikazio sistema bat baliatu ahal izango du arauketa harmonizatuari loturik ez dauden kontratuak egiteko. Sistema hori prozedura garden eta ireki baten bidez sortua izango da eta bertan nahi duten enpresa eta profesional guztiek izena eman ahal izango dute beren borondatez, inolako bazterketarik gabe.

Kualifikazio sistema hori sortzea erabakiko balitz, SPRIren kontratatzaile profilean argitaratuko litzateke.

8. ESKA DAITEZKEEN BERMEAK

Kontratuaren ingurumari eta ezaugarriak aintzat hartuaz, kontratazio organoak eskumena izango du lizitatzailer edo hautagaiei berme bat jar dezatela eskatzeko, kontratua esleitu artean beren eskaintzei eutsiko dietela segurtatzeko, eta berme bat adjudikaziodunari prestazioa behar bezala gauzatzen duela bermatzeko.

Berme horren zenbatekoa kontratuaren ingurumari eta ezaugarrien arabera finkatuko da.

Eskatzen diren bermeak jartzeko, SPKLTBren 96. artikuluan adierazten den edozein bide jarraitu daiteke, plegoetan bakar bat aukeratua izan ez bada behintzat.

9. KONTRATUAK PRESTATU

SPKLTBren II. Eranskineko 17.etik 27.era bitarteko kategorietan dauden 221.000 euroko edo gehiagoko zerbitzu-kontratuak, SPKLren 137.1. artikuluari eta harekin bat datozen xedapenei jarraiki prestatuko dira.

KABletan aipatzen diren gainerako kontratuetan plegu bat egin beharko da kontratua 50.000 eurotik gorakoa denean, pleguaren edukia SPKLTBren 137.2 artikuluan eta harekin bat datozen xedapenetan adierazten dena izango delarik. Aplikagarria izango da, baita ere, SPKLTBren 120. artikuluan xedatzen dena.

Horrezaz gain, KABlekin bat datozen atalen arabera bidezkoa den informazioa ere jasoko da pleguan.

Hau da, kontuan harturik SPKLTBren 137.2. artikuluen edukia eta artikuluen horrekin bat datozen KABlen atalak, pleguetan ondoko datuak jasoko dira derrigorrez, kontratazio organoak eska ditzakeenez gain:

- (a)** Kontratuaren oinarrizko ezaugarriak.
- (b)** Aldaerak onartzeko araubidea.
- (c)** Eskaintzak jasotzeko erak.
- (d)** Lizitazioan parte hartu nahi duten enpresariei eskatu dakizkiekeen kaudimen eta gaitasun baldintza minimoak.
- (e)** Kontratazio organoak hala irizten dionean, eskaintzak aurkezteko gonbita hartuko duten hautagaien kaudimen irizpide objektiboak, eta baita ere eskaintza

aurkezteko gonbita egingo zaien hautagaien gehieneko kopurua, hautagaiok inoiz ezingo baitira izan hiru baino gutxiago.

(f) Eskaintza guztietatik onena zein den erabakitzeke baliatuko diren irizpide tekniko eta ekonomikoak.

(g) Kontratazio organoaren iritziz beharrezkoa denean, balorazio organo bat eratuko da, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeko, eskaintzak baloratzeko eta esleipen proposamena egiteko.

(h) Aukeratutako lizitatzaila(k) jarri beharreko bermeak, hala balegokio.

(i) SPKLTBren 120. artikuluari jarraituz, lan kontratuetako subrogazio baldintzei buruzko informazioa, hala balegokio.

(j) Kontratistari konfidentzialtasuna zaintzeko betebeharra ezartzen bazaio, betebehara horren iraupen objektiboa.

(k) Baldin lizitatzailaek denbora gehiago beharko balute informazio gehigarria lortzeko, argi adieraziko dira horretarako jartzen diren epeak, eta baita ere eskaintzak edo, hala balegokio, parte-hartze eskaerak aurkezteko epeak, bai eta aurkeztutako dokumentazioa osatu edo zuzentzeko ematen diren epeak ere, kontratazio organoak osatze edo zuzenketa lan horiek egiteko eskatzen dituen kasuetan.

(l) Kontratua egiteko epea, hamar egun naturalez bestelako epe bat ezarri nahi den kasuetan.

(m) KABI hauen 10.3. atalean zehazten diren 2. mailako kontratuetan, kontratazio organoak aukeratutako esleipen prozeduraren justifikazioa, KABI hauetan aurreikusitako moduan.

10. KONTRATISTA AUKERATU ETA KONTRATUAK ESLEITU:

10.1. Kontratu mailak

KABI hauek aplikatzeko eta kontratu bakoitzari aplikatu behar zaizkion prozedurak eta betekizunak zehazteko, ondoko kontratu mailak bereizten dira (hemendik Aurrera horietako bakoitza adierazteko “Maila” idatziko da eta multzo osoari deitzeko berriz “Mailak”):

(a) 1. Maila: Maila honetan sartzen dira 50.000 eurotik gorakoak ez diren kontratuak, edonolakoak izanik ere.

(b) 2. Maila: Maila honetan sartzen dira 1.mailan zehaztutako kopurutik gorako kontratuak, arauketa harmonizatuari loturik ez daudenak.

10.2. Publizitatea

Edozein izanik ere kontratuaren Maila, kontratua 50.000 eurotik gorakoa denean beharrezkoa izango da lizitazioari buruzko informazioa txertatzea SPRIren kontratatzaile profilean. Halere, kontratuaren ingurumari eta ezaugarri bereziak aintzat harturik posible izango da bestelako zabalkunde tresna batzuk ere erabiltzea, mugarik gabe erabili ahal izango direlarik aldizkari ofizialak, herrietako argitalpenak eta Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala. Era berean, egoki iritziz gero, aukera dago baita ere alde zuzenetik ateratzeko urtaldi bakoitzean edo urte anitzeko epe batean esleitu behar diren kontratuei buruzko iragarkiak.

Lizitazio iragarkian ondoko datuak agertu behar dira:

(a) Kontratuaren funtsezko xehetasunen deskripzio laburra.

(b) Kontratua esleitzeko prozedura, zehaztuz zein epe ematen den eskaintzak aurkezteko (prozedura irekian) edo parte-hartze eskaerak aurkezteko (prozedura negoziatu eta mugatua), bai eta enprekin negoziatu behar diren alderdi ekonomiko eta teknikoak ere (prozedura negoziatua).

(c) Kontratazio organoak hala iritziko balio, eskaintzak aurkeztera gonbidatuak izango diren hautagaiak aukeratzeko erabiliko diren kaudimen irizpide objektiboak, zehaztuz, kasu horretan, zein epe ematen den parte-hartze eskaerak aurkezteko.

(d) Informazio gehiago behar izanez gero, SPRIrekin harremanetan jartzeko gonbita.

Nolanahi ere, kontratuaren ingurumari eta izaerak hala egitea gomendatzen badu, posible izango da informazio gehiago jartzea iragarkian eta kontratatzailearen profilean.

Aurreko paragrafoetan esandakoa gorabehera, publikitatea alde batera utzi ahal izango da SPKLTBren 177. artikulua araberako publikitatearen premiarik ez duten lege testu horren 170.etik 175.era bitarteko artikuluen araberako prozedura negoziatua aplikatu dakiekeen kasuetan.

10.3. Esleitzeko prozedurak

Kontratuak esleitzean, SPRIK maila bakoitzerako ezartzen diren ondoko bermeak beteko ditu gutxienez:

(a) 1. Mailako kontratuak: zuzeneko esleipena

1. Mailako kontratuak zuzenean esleitu ahal izango zaizkio jarduteko gaitasuna duen eta kontratuaren xedea gauzatzeko behar den gaikuntza profesionala daukan edozein enpresariri, eskaintza bat eskatuz gutun bidez enpresari bakar bati.

Kontratuaren ingurumari eta ezaugarriak aintzat harturik, posible izango da 1. Mailako kontratuei goragoko mailaren baterako aurreikusita dauden esleipen arauak aplikatzea.

(b) 2. Mailako kontratuak: prozedura irekiak, mudatuak, negoziatuak edota elkarrizketa lehiakorra

Kontratazio organuak zehaztu egin beharko du Pleguan, hautatutako esleipen prozedura, irekia, mugatua, negoziatua edota elkarrizketa lehiakorraren artean, kontratuaren ezaugarrien arabera, ondorengo paragrafoetan aurreikusitako araeekin bat etorritik.

Aukera egongo da prozedura ireki eta mugatuaren artean aukeratzeko ondoko kasuetan:

(a) Kontratatu nahi diren prestazioak behar bezain zehazki definituta daudenean eta, hortaz, eurei buruzko kontu tekniko edo ekonomikoak negoziatzeko premiarik ez dagoenean.

(b) Kontratu bat ekonomikoki garrantzitsua delako edo arauketa harmonizatuari lotutako kontratuen zenbatekotik hurbil dagoelako kontratazio organoari iruditzen zaionean prozedura ireki edo mugatuaren bitartez hobeto betetzen direla KABI hauetako 4. atalean zehaztutako printzipioak.

Prozedura negoziatua erabiltzekotan, honako arauak aplikatuko dira:

(i). Hartarako aukera dagoen guztietan, SPRIk eskaintzak eskatuko dizkie kontratua betetzeko gauza diren hiru enpresari gutxienez. Lizitazioan parte hartzeko interesa agertzeko emandako epean interesa adierazi dutenak gonbidatuak izango dira eskaintzak aurkeztera. Bitartean, kontratazio organoak egoki irizten badio, kaudimeneko irizpide objektiboak ezarri ahal izango ditu lizitazioan parte hartzeko interesa erakutsi duten hautagaien artean, eskaintzak

aurkezteko gonbita zeini luzatu aukeratzeko; era berean, eskumena izango du gonbidatuak izango diren gehieneko hautagai kopuru bat ezartzeko, zeina ez baita izango hiru baino gutxiago. Irizpide objektibo hauek kontratuaren iragarkian agertzea borondatezkoa izango da, vaina dagokion pleguan agertzea derrigorrezkoa.

(ii). Baldin kontratazio organoari iruditzen bazaio kontratuaren konplexutasun teknikoarengatik nahiz kontratuaren ingurumari edo ezaugarri bereziengatik komenigarria dela balorazio organo bat eratzea, eskumena izango du hala egiteko, eta hala adieraziko du pleguan. Organo horren zeregina izango da jasotako dokumentazioa kalifikatzea, eskaintzak baloratzea eta kontratazio organoari esleipen proposamena bidaltzea.

(iii). SPRIK eskumena izango du kontratuko edozein puntu lizitatzailerekin negoziatzeko, beti ere dagokion pleguan ezarritakoari jarraituz, hala balegokio. Negoziatzen diharduen bitartean kontu egingo du lizitatzailerik guztiek tratatu berdina hartzen dutela eta ez du emango informaziorik modu diskriminatzailean.

(iv). Kontratua eskaintza ekonomiko onenari emango zaio beti, pleguan ezarritako irizpide ekonomiko edo teknikoei jarraituz.

(v). SPRIK jasota utziko ditu luzatu dituen gonbidapenak, jaso dituen eskaintzak eta haiek onartu edo ezesteko arrazoiak.

Prozedura ireki edo mugatua aplikatzen den kasuetan aplikagarriak izango dira SPKLTBren 157.etik 168.era bitarteko artikuluetako aurreikuspenak, ondoko egokitzeekin:

(a) Ezingo dira aplikatu lizitatzailerik informazioa emateko epeak, ezta ere eskaintzak edo parte-hartze eskaerak aurkezteko ezarritako epeak. Horien ordez, iragarkian edo, hala balegokio, pleguan zehazten diren epeak aplikatuko dira. Nolanahi ere, jartzen diren epeak beti izango dira nahikoak edozein lizitatzailerik, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako enpresek barne, astia izan dezaten deialdia egoki aztertu eta eskaintza aurkezteko.

(b) Baldin kontratazio organoari iruditzen bazaio kontratuaren konplexutasun teknikoarengatik nahiz kontratuaren ingurumari edo ezaugarri bereziengatik komenigarria dela balorazio organo bat eratzea, eskumena izango du hala egiteko, eta hala adieraziko du pleguan. Organo horren zeregina izango da jasotako dokumentazioa kalifikatzea, eskaintzak baloratzea eta kontratazio

organoari esleipen proposamena bidaltzea. Ez da aplikagarria izango adituen batzordearen parte-hartzeaz SPKLTBren 150.2. artikuluan aurreikusitakoa.

SPKLTBren 180. artikuluan aurreikusitako baldintzak ematen direnean, aukera egongo da elkarritzeta lehiakorraren prozedura aplikatzeko. Prozedura hori SPKLTBren 179.etik 183.era bitarteko artikuluetan xedatutakoaren bidetik gauzatuko da, aurreko paragrafoetan prozedura ireki edo mugatuetarako adierazi diren egokitzapen berdinekin.

10.4. Kontratista aukeratu

Aurreko kasuetatik edozeinetan, prozeduran parte hartutako guztiei jakinaraziko zaie zein kontratista aukeratu den eta argitara emango da SPRIren kontratatzaile profila, salbu eta kontrakoa erabakitzen bada kontratuaren ingurumari eta ezaugarrien kausaz.

10.5. Kontratuak formalizatu

Dagokion pleguan jasota agertzen denean salbu, eta SPKLTBren 26. Artikuluari jarraituz, KABlei lotutako kontratuetan derrigorrez agertu beharko dira ondoko elementuak:

- (a)** Alderdien identifikazioa.
- (b)** Sinatzaileek kontratua sinatzeko duten gaitasunaren egiaztapena.
- (c)** Kontratuaren xedearen definizioa.
- (d)** Kontratuari aplika dakiokeen legeria.
- (e)** Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda. Kontratuan hala esaten bada, dokumentazio hori hierarkikoki antolatuta agertu daiteke alderdiek adostutako lehentasun hurrenkeran; hala eginez gero, eta tartean akats nabarmenen bat egon ezik, hitzartutako hurrenkera hori baliatuko da, dokumentuen artean kontraesanak daudenean, zein gailentzen den jakiteko.
- (f)** Egiazko prezioa edo prezioa zehazteko modua.
- (g)** Kontratuaren iraupena edo kontratua burutzen hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak, baita ere kontratuaren luzapenaren edo luzapenen datak, aurrez ikusita baleude.
- (h)** Prestazioen harrera eta entrega edo onespenaren baldintzak.

(i) Ordainketa baldintzak.

(j) Zein kasutan den bidezkoa kontratua etetea

(k) Prezioa zein aurrekontu kreditutik edo zein programa edo kontabilitate errubrikatik ordainduko den, ordaintzekotan.

(l) Kontratistari konfidentzialtasuna zaintzeko betebeharra ezartzen bazaio, betebehara horren iraupen objektiboa.

Oro har, kontratua formalizatzeko epea hamar egun naturalekoa izango da kontratista aukeratzen den egunetik hasita, baldin plegu eta eskaintzetan bestelako eperik zehazten ez bada.

Kontratua sinatuz adieraziko du SPRIk kontratua onartu izana, eta horrenbestez kontratua burututa geratuko da.

11. ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKOKO ARAUAK

Bere kontratuen esleipena arrazionalizatu eta antolatzeko, SPRIk aukera izango du enkante elektronikoak egiteko, hitzarmen markoak sinatzeko, sistema dinamikoak artikulatzeko edo obra, zerbitzu eta horniketak zerbitzu edo erakundeetan zentralizatzeko SPKLTBren 207. artikuluan eta 148.etik 194.era bitarteko artikuluetan xedatutakoari jarraituz, kasu guztietan aplikagarriak izango direlarik KABI hauetatik eratorri diren egokitzapenak.

12. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio zibila izango da KABI hauek xedetzat dituzten kontratuen prestatze, esleitze, betetze, iraungitze eta ondorioen inguruan gerta daitezkeen auzi guztiak ebazteko jurisdikzioa.

* * *